

# Harian >

## Osasuna → Espainiako Gobernuaren murrizketak

### Kotizatu ez duten pertsonen babesua auzitan jarri du arauak

Gizarte Segurantzian inoiz kotizatu ez dutenen osasun babesua auzitan jarri du Espainiako Gobernuaren dekretuak. 26 urtean jarri du muga Madrilek: adin horretara artekoek daukate aukera gurasoen osasun babesaren onuradun izateko; hortik aurrera, dekretuak dio langileek, pentsiodunek eta langabezia saria ja-

sozten ari diren edo agortu duten pertsonen dutela eskubidea zerbitzua jasotzeko. Kanpora daude lanik eta kotizaziorik ez dutenak; diru sarrerarik ez dutela frogatu beharko dute. Ana Mato Espainiako Osasun ministroak adierazi du «espainiar batek ere» ez duela osasun txartela galduko «diruagatik». Gobernuak ez du oraindik zehaztu zein bide erabiliko duten zerbitzua bermatzeko.



Hiru lagun, gurgildun aulkian. JON URBE / ARP

### Protesiak ere berrordaindu beharko dira aurrerantzean

Gurpil aulkia, hanka ortopedikoak eta era horretako protesiak ere berrordaindu egin beharko dituzte aurrerantzean Hegoaldean. Botiketan bezala pagatu beharko dira: pentsiodunek %10, eta langileek %50. Sendagaia baina nabarmen garestiagoak dira protesiak, eta aldiari-aldiari aldatu egin behar dira.

# 21.500 etorkin, babesik gabe

Espainiako Gobernuak osasun zerbitzurik gabe utziko ditu paperik ez duten etorkinak: larrialdietara soilik jo ahaliko dute gaixotzean

Neurriarekin diru gutxi aurreztuko dela uste dute eragileek; egoera larriaz ohartarazi dute

#### Garikoitz Goikoetxea

Murrizketen eta erreformen altxoan, osasunerako eskubidea mugatu du Espainiako Gobernuak: paperik ez daukaten etorkinei ez diete zerbitzurik emango abuztuaren 31tik aurrera; kendu egingo diete osasun txartela. Hego Euskal Herrian 21.500 pertsona inguru geratuko dira babesik gabe, Ikuspegik eta Immigrazioaren Nafarroako Behatokiak jakinarazitako datuen arabera. Horiei gehitu beharra dago lehen ere osasun txartelirik ez dutenen kopurua, haiek orain ere ez baita daukate zerbitzurik; ez dakite zenbat diren, ezkutuan baitaude. Osasun zerbitzua kentzeak sortuko duen kalteaz ohartarazi dute eragileek, etorkinek ez ezik gainerakoek ere pairatuko dutelakoan.

Hiru aste eskasean erreforma handiak iragarri eta onartu ditu Espainiako Gobernuak osasunaren alorrean. Helburu bakarrekin onartu ere: 7.000 milioi euro gutxiago erabiltzea zerbitzuetara. Erretiratuek eta pentsiodunek aurrerantzean botikak ordaindu behar izateak sortu zuen zalaparta handiena: sendagaia balioaren %10 pagatu beharko dute —gaur egun ez dute ezer ordaintzen—, eta gainerakoek, erdia —orain, %40—; laguntzarik ez duten langabeek ez dute botikak pagatu beharrik izango.

Aurrez iragarri gabeko erabaki bat ere hartu du, ordea, Madrilek: osasun txartela kenduko die erroldan ageri bai baina paperik ez daukatenei. Aurreiritzi bat bere egin du gobernuak: zergak ordaindu ez, eta osasun zerbitzuak maiz erabiltzen dituztela atzeritarrek.

Neurri horrekin osasun turismoa esaten diotena saihestuko dutela nabarmendu du PPren gobernuak; alegia, kanpotarrak ez direla osasun zerbitzuak jasotzeagatik joango Espainiara eta Hegoaldera. «Europa klasiko herri-tarrek egiten dute osasun turismoa, eta hemen ez dago horrelako immigrazioerik; europarrak etortzen dira, baina ekialdekoak». Immigrazioaren Nafarroako Behatokiako kide Antidio Martínez de Lizarrondok egin du azterketa. Antzera hitz egin du Gorka Morenok ere, Ikuspegiko zuzendariak: «Etorkinen artean bi talde bereziko nituzke: gazteak, lanera datozenak, eta adinekoak, batez ere europarrak, bizitzera datozenak. Gazteak etortzen dira gurer». »

#### Gehiagori eragiteko arriskua

Gazteak izango dira zerbitzutik at geratuko direnak. «Iritsi berriek ez dute egoitza baimenik; oro har, hiru urte pasatu ondoren lortzen dira, gizartean errotuta daudela frogatuz gero», azaldu du Morenok. Osasun txartela jasotzeko, hiru hilabete erroldan egotea eskatzen dute. «Egia da azken boladan gero eta zailtasun gehiago jartzten ari zirela txartela lortzeko, baina eskubidea hor zegoen. Eskubide hori kendu dute orain», salatu du SOS Arrazakeriako eledun Mikel Mazkianek.

Txartela zenbati kenduko dieten jakitea zaila da, baina 21.500 inguru izango dira Hegoaldean, erakunde datuek eta inkestek diotenez. Ordea, litekeena da gehiago izatea. Moreno: «Langabezia saria galdu ostean gera daitezke baimenik gabe. Ez dira asko izan, baina egoera txarrean geratzen dira».



Gizarte murrizketen aurka protesta egin zuten Joan den urrian etorkinek Gastelzen. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS



**14»** Nervaceroko zuzendaritzak 55 langile kaleratu nahi ditu, eta besteei soldata jaitzi

**18»** Igangeko bozei begira Sarkozyren alde egin dute Fronte Nazionaleko bi kide historikok

## Osasuna → Espainiako Gobernuaren murrizketak

### Basagoiti: «Osasun zerbitzua aurrena, etxekoentzat»

«Denentzako osasun arreata defendatzen dut, baina aurrena etxekoentzat». Espainiako Gobernuak paperik gabeko etorkinei osasun txartela kentzeari buruz duen iritzia eman du EAeko PPKo presidentea Antonio Basagoitik. Raxoiren gobernuak hartuko erabaki defendatu du, eta «ausardiak» jokatu duela. «Zailta-

sun garai bat da, eta sozialki justuena da lehenbizi zailtasunak dituzten bertako herritarrei laguntzea, eta ez modu irregularren daudenei». Uste du etorkinen gehienak «lan egitera» etorri direla. «Horiek dira nik defendatzen ditudan etorkinak, eta beti egingo dut. Baina, zorritzarrez, paperik gabeko etorkinek egingo dako gehiegikeriak ordaintzen ari dira». Basagoitik galaren inguruan duten iritzi

argitzeko eskatu die Eusko Jaurlaritzako lehendakari Patxi Lopezi, eta EAJren EBBko presidente Iñigo Urkulluri. PSE-EEK eta Alternatibak Basagoitik esandakoak salatu dituzte. «Le Penek diskurtsoen parekoak dira. Hobeto pentsatu beharko luke esaten duena», adierazi du PSE-EEKo bozeramaille Jose Antonio Pastorrek. Alternatibaren ustez, «aurpegirik arrazistena» erakutsi du.



Xenofobiaren mugan dago etorkin irregularrei osasun txartela kentzea; ikuspegi sozialetik, atzerapausoa da»

ELENA TORRES  
Nafarroako Gizarte Politikako kontseilaria

Egoera horretaz ohartarazi du Caritasek, sortuko duen kalteaz. Ramon Ibeas, Arabako arduraduna: «Zein etorkini buruz ari gara hizketan? Behartsuak geratuko dira zerbitzutik kanpo». Eta hori guztiak pairatu beharko dute, haren iritziz. «Gaixotzen jarraituko dute etorkinek. Eritasun kutsakorrek ere harrapa ditzakete. Zer gertatuko da tuberkulosia badute? Etorkinei zerbitzua kenduta, gizarte osoak galduko du».

### Adinekoak, apenas

Diru gutxi aurreztuko dute neurriarekin, eta kaltea handia izango da. Hori uste du SOS Arrazakeriako ordezkariak: «Ez dira hainbeste etorkin irregularrak, azken urteetan jaitzi egin baita kopurua. Gastuan aurreztuko dutena baino handiagoa da izango duen eragina». Hori uste du Ikuspegiako arduradunak ere: «Neurri bera orain sei-zazpi urte hartu bazuten, etorkinen erdiei baino gehiagori eragingo zien; orain, %12 ingururi eragingo die. Eta gazteak dira ia denak». Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, paperik ez dutenen %0,008k dituzte 65 urte baino gehiago. «Neurriarekin ez da asko aurreztuko», azaldu du Morenok.

Osasun aldetik ez dute aparteko arazorik izaten immigranteek. «Gazteak dira gehienak, osasuntsuak. Behin soilik etortzen zaizkigu kontsultara normalean, eta, behar baino gutxiago, pare bat bider». Txartelik ez duten etorkinei zerbitzua ematen ari da azken hamabi urteetan Munduko Medikuek elkarteak. Teresa Maura zuzendariak ez du itxaropena galdu erietxeetan segituko dutela etorkinei kasu egiten: «Beharra duena ezin da utzi artatu gabe. Saiatuko gara gauzak hain gorrak ez daitezen izan». Iaz, 600 lagunek jo zuten elkarteko kontsultara.

Bi bide geratuko zaizkie txartelik gabeko etorkinei: larrialdietara jotzea edo gobernu kanpoko elkarretara joatea laguntza eske. Larrialdietan lehen ere pilaketak sortzen dira, eta areagotu egin daitezke. «Larrialdietara joatera kondanatuta egongo dira, eta badakigu nola dagoen egoera hain», ohartarazi du Morenok. Immigranteak ikusiko ditu jendeak erietxera joandakoan, eta berriro itzuliko dira iritzi aurkakoak, atzeritarrek kolapsatu egiten dituztela larrialdiak. Mazkianaren: «Barneratuta dauden iritzi ezkorak areagotu egingo lirateke».



Neurria orain sei-zazpi urte hartuta, etorkinen erdiei eragingo zien; orain, %12 ingururi»

GORKA MORENO  
Ikuspegiako zuzendaria

«Europa klasikokoek egiten dute osasun turismoa»; hemen ez da halako immigraziorik»

ANTONIO MARTINEZ DE LIZARRONDO  
Immigrazioaren Nafarroako Behatutikoko kidea

«Etorkin irregularrak ez dira hainbeste; gastuan aurreztutakoa baino handiagoa da eragina»

MIKEL MAZKIARAN  
SOS Arrazakeriako eleduna

«Zerbitzu guztiak ezin ditugu eskaini denentzat, ezta pentsatu ere; estatuak du betebeharra»

RAMON IBEAS  
Caritasen Arabako arduraduna

«Gazteak dira etorkin gehienak, osasuntsuak. Behin soilik etortzen zaizkigu kontsultara»

TERESA MAURA  
Munduko Medikuek elkarteko presidentea

Beldurrez daude immigranteak, SOS Arrazakeriako kidearen arabera: «Kezkatuta dago jendea, batez ere tratamenduren bat behar dutenak. Dialisia egiten dutenak, adibidez, galdezka etorri zaizkigu, jarraitu ahalko ote duten. Lasaitasuna eskatzen ari gara». Ez dute argitu zer gertatuko den horrelako kasuetan. Hala ere, hau da arau orokorra: paperik ez dutenek soilik larrialdietara jo ahalko dute, adingabeek eta erditzera doazen andreek izan ezik. Osasunaren ikuspegitik ez ezik, neurri okerra da diruaren aldetik erreparatuta ere. Hala irizten dio Munduko Medikuek elkarteko buruak: «Larrialdietan artatzea garestiagoa da, eta gaixoak okerrago egoten dira. Erakundeek badakite hobe eta merkeagoa dela lehen arretan kasu egitea».

**Eskubideak, karitatearen esku**  
Mozketetan gertatzen dena osasunarekin ere gertatuko dela uste dute eragileek: «Elkarte sozialek sartu beharko dute tartean, zerbitzuak emateko. Osasunari buruz ari gara hizketan, eskubide bati buruz», dio Mazkianaren. Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak zer egingo dago, nolana ere.

Zer gertatzen den ikusi nahi du Maurak ere, baina aurreratu du beharra balego prest leudekeela zerbitzua zabaltzeko. «Boluntarioen bidez funtzionatzen dugu, eta deia egingo genuke egoerak eskatuko balu». Bidea ez da hori, ordea. «Osasuna giza eskubide bat da, eta administrazioaren gain izan behar du». Antzera uste du Caritaseko ordezkariak ere: «Eskaintzen ditugu larrialdiko zerbitzu batzuk. Araban, osasun publikoan ez daudenak eskaintzen ditugu; dentista, kasu. Baina ezin ditugu osasun zerbitzu guztiak denentzat eskaini, ezta pentsatu ere. Estatuak ditu betebeharrak».

Karitatearen esku geratzen ari dira pobreen eskubideak? «Bai, baina karitatea ulertzen da ongintza gisa; daukatenek dirua ematen dute, ez daukatenek irau dezaten. Baina eskubidei buruz ari gara hizketan», salatu du Ibeasek. Osasunean gutxiago gastatzeneko araua kaleratu du dagoeneko Madril. Etorkinei sarbidea kentzea jarri dute aurrezteko bidetako bat. Morenok: «Erabakiaren muina bada dirua aurrezteko, ez dute asko lortuko; baldin bada hementxo lasaitzea eta eragin mediatikoa izatea, jada lortu dute».

Osasun sistemaren orain arteko erudia kolokan jarri dute Espainiako Gobernuaren erreformek: herritar guztien eskubide zen osasuna, baina orain Gizarte Segurantzaren daudenean soilik izango dute. Osaldekoko buruak uste du bide pribatuari atea zabaltzeko horrela.

# Eskubide zena, aseguruia izatearen menpe

## 6. Gaiak

**E**redua aldatu du Hego Euskal Herriko eta Espainiako osasun sisteman PPren gobernuak: guztien eskubide izateari utzi dio osasunak. «Gordean aldatu dute erudia. Dekretu baten bidez lege organiko askotan bildutakoa aldatu da». Juan Luis Uria Osalde osasun publikoaren aldeko elkarteko presidentea ezkor hartu ditu Espainiako Gobernuak iragarritako murrizketak. Paperik ez duten etorkinak zerbitzutik kanpo utzi dituzte, eta gehiago daude arriskuan. «1948ko ereduak da: Gizarte Segurantzaren bazea, baduzu eskubidea; bestela, ez».

Urte luzeetan lortutakoa aste gutxian galtzeko arriskua ikusi du Uriak. «Ongizate aurreratuek zuten herrialdeak hartu genituen eredu gisa: Finlandia, Ingalaterra, Norvegia... Osasun zerbitzu publikoa, herritarren zergen bitartez pagatua». Hori aldatuko da, ordea: paperik ez duten etorkinek larrialdietara soilik joan ahal izango dute, eta botikak errentaren arabera pagatuko dituzte gaixotzen direnek. Neurri okerrak dira, Osaldeko buruaren hitzetan: «Kohesio sozialari begira, arriskutsua da». Sendagaien truke ezberdin pagatuko dute batzuek eta besteek; ikusteko dago zerbitzuaren zer gertatuko den.

Hiru zerbitzu mota izango direla aurreratu du Espainiako Osasun Ministerioak, xehetasunik eman gabe: zerbitzu oinarrizkoak, osagarriak eta bigarren mailakoak. Banaketa hori susmagarri zaio Uriari. «Aseguruetako polizien gisakoa da: zer ordaintzen duzun, zerbitzu batzuk dituzu».

### Pribatua, (osagarri)

Berrordainketa botikez harago ere jarri nahi du Madril: anbulantzetan —larrialdikoetan izan ezik— eta protesiatan, esate baterako. Zenbat diru duen bakoitzak, izango du aukera pagatzeko edo ez. «Ereduan badago aldaketa, eta, azken batean, eskubideetan».

Sare pribatuari atea zabaltzeko diotela salatzen ari dira: Nafarroan, adibidez, talde bat sortu dute horren aurka. «Osasun publikoak eta pribatuak osagarri izan behar dutela ari dira esaten enpresak. Klinikak saiatuko dira diru publiko erakartzen», dio Uriak. Haren arabera, gainera, itunak egindakoan jaitzi egiten da alor publikoko inbertsioa: «Erresonantziak klinika pribatuarekin itunduz gero, publikoan ez da inbertitzen horretan». Ondorioz gogoeta egitera deitu du: «Enpresentzat osasuna negozio bat da, ez eskubide bat. Osasun sistema publikoak, berriz, berdintasuna du ezaugarri nagusietako bat».

Etengabeko murrizketa hotsek eta aldaketa iragarpenek jendea alor pribaturara bultzatzen dute. «Segurtasunik eza sortzen dute osasuneko murrizketei buruzko berriek, eta jendea alor pribatuan hasten da bila, zerbitzu merkea bada ere». Datu bat eman du: Bizkaian, bost herritarretik batek pasatxok —315.000 baino gehiagok— daukate eginda osasuneko aseguru pribatu bat. Gainerako herrialdeetan kopurua apalagoa dela azaldu du, nolana ere.

Egoera iluna izanagatik ere, baikor azaldu du Osaldeko arduraduna: «Osasun publikoarekiko kultura badugu hemen, eta zail izango dute bertan behera uztea».